

ZEREGINA. IKUSMIRA ETA BALIOAK

ZEREGINA:

Laskorain Ikastola, 18 urte bitarteko ikasleen hezkuntza beharrei erantzun egokia ematearren herri ekimenaren bidez sortutako erakundea da. Langile talde konprometitua gurasoekin, eta erakunde lagunekin, ari da elkarlanean hauen seme-alaben heziketa laguntzeko eta osatzeko; horrela, ikasleak, pertsona buruaskiak, orekatuak, sortzaileak eta zioriontsuak izatera hel daitezten. Aldi berean euskaldun oso eta herriaren eraikuntzan partaide zuzenak izan daitezten saiatuko eta horretarako gizarte eragileekin batera arituko da.

IKUSMIRA:

Laskorain Ikastola punta-puntako ikastetxea izan dadin nahi dugu. Bertatik aterako diren ikasleen ahalmen pertsonal, akademiko zein profesionalak gorengo mailan potentziatuko dituelako. Hauek euskaldun jatorrak izan eta euskal gizarte on baten eraikuntzarako konpromiso zuzena dutelako ezagutuko dira.

Eta hori, beraien eskura baliabide egokiak dituzten, maila pertsonal, tekniko eta dedikazio handiko irakasleekin eta inplikazio zuzena eta laguntza ematen duten gurasoekin eta beste gizarte eragile laguntzaileekin

BALIOAK:

Eite pedagogikoa:

- Hezkuntzak oinarrizko zeregina du euskal gizartearen eraikuntzan eta abiapuntu honek gure komunitateko partaide guztiak elkartzen ditu.
- Desberdintasun guztiak integratzearen alde lan egiten dugu.
- Arreta berezia jartzen dugu zailtasun handiagoak dituzten ikasleekin.
- Ikasleen arlo etikoa sustatzen dugu, askatasuna, zentzu kritikoa, partaidetza, elkarbizitza eta bakea bezalako baloreak azpimarratuz.
- Ikasleen bidelagun gara bere hazkunde fisikoan, afektibitatearen heldutasunean eta bere integrazio sozialean, bere adimenaren langintzan laguntzaile garen era berean.
- Gure hezkuntza sistema uneoro azaltzen diren beharrei egokitzen zaie eta hezkuntza kalitatea hobetzeko baliagarriak diren berrikuntza didaktikoak bereganatzen ditu.
- Ekologia zaintzeko konpromisoa hartzen dugu eta horretan ahalegintzen gara.
- Gure hezkuntza zeregina gelatik eta eskola ordutegitik harantzago doa ekintza osagarrien, orduz kanpokoen eta denbora libreko ekintzen bidez, eskola bizitzari eta inguruneari irekiaz.

Hizkuntz proiektua:

- Gure komunitateko partaide guztiok, bizitzako arlo guztietan eta ahal den maila guztietan euskaraz bizitzera konprometitzen gara.
- Gure ikasleak beste kulturetara irekiak egongo dira eta horregatik eleanitzak izango dira.

Antolakuntza eta gestioa:

- Familien beharrak eta nahiak izango dira gidak gure zerbitzuen eskaintza egiterako orduan.
- Gure portaera epe ertain eta luzeko estrategietan oinarritua dago. Modu honetan egoera aurreikusi gabeak gutxitu egingo dira eta eguneko zeregina hobeki zuzenduko dugu.
- Gure jokabidea, ahalik eta kontzientzurik handienaz onartutako helburuen bitartez zuzenduko dugu. Horretarako hezkuntza komunitateko kide guztien partaidetza sustatuko dugu.
- Proiektua gauzatzeko orduan oinarritzkoa izango da langileriaren gogobetetzea eta horretarako baliagarri diren jokabide guztiak -hala nola, informazioa, formazioa, partaidetza, pizgarriak...- ontzat emango dira.
- Irakasleriaren laneko giroa errespetua, adiskidetasuna, formalitatea eta elkarlanaren euskarrietan oinarrituko da.
- Giza baliabide eta teknologikoen gestioa eta erabilera emaitza hobekuntza lortzera zuzenduko da.
- Prozesu guztiak eta eguneroko praktika etengabeko hobekuntza batera zuzenduko dira.
- Irakaskintza-ikaskintza prozesua, batez ere, etengabeko hobekuntza baten menpe egongo da. Horretarako, egiten dugunetik abiatu eta era koordinatu batean, gogoeta, berrikuntza, esperimentazio eta inbestigazio giroa sustatuko dugu.
- Formazio prozesua zentroak zehazturiko portaera eta jarreratan oinarrituko da. Zentroari dagokio bere partaide guztien portaera ereduak zehaztea eta giro atsegin eta suspergarrian bideratuko dira.